

# Larzabal eta taulagaina

LUKU, Antton  
Antzerkigilea

– Zer gizon zen?

Maite Dunat: – Zer gizon zen? Gizon..., apeza..., mintzo zelarik jendeer irri eginarazteko bezala ari zen, gauza serioak ere erraten zituen baina arraileria... iduri zuen arinki nahi zituela gauzak hartu.

## Errealismotik estilo propio baten eraikitzeari buruz

Ardura errana izan zaigu 1990. urteetan antzerki idazten hasi ginenoiz Larzabal aita genuela, baina nik, esaterako, ez dut ezagutu. Ikusi, bai, behin, manifa edo elkarretaratze politiko batean, biziki inguratua zegoen eta entzun nuen Larzabal gizon hura zela. Besterik ez. Larzabal ezagutu ez dugun aitatxi bat da guretzat, haren testuak etxeetan zeuden alta, eskutik eskura pasatzen ziren, estatu txarreko fotokopia gaizki joak ardura eta bagenekien *Bordaxuri* edo *Herriko bozak* harenak zirela, *Etxahun* eta *Mugari tiro* bezala, *Xirrixti-Mirristi*-k izen bereko taldea sortu zuen baina antzerki haiek behar omen ziren moztu biziki eta egokitu hagitz zahartuak baitziren abantzu denak... Denek bagenuen aditze *Matalas* Baionako antzokian izan zen balentria, baina hura antzerkilarien «*Chanson de geste*» bezala zen.

Nihaur Larzabal-en obran eta pentsamoldean zinez sartu nintzen Piarres Xarritonek azkaindarraren heriotzaren ondotik, beste batzuekin, Elkarren argitaratu zituelarik haren «obras completas». Edo atzeman zirenak bederen bildu baitzituen. Galduak bestalde...

*Euskera*. 2015, 60, 1. 91-105. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Lehen liburutik hasten garelarik irakurtzen, atzematen dira komedia arin eta errural batzuk, irri-egingarriak, helburua denbora pasatzea dutela iduri baitzaigu. Uste dut joan behar dela *Oroitzapenak* titulu daukaten azken tomoetara giltzaren bila. Oroitzapenetan erraten digu idazleak, seminario testuinguruan hasi zela idazten, eta boz eskergarriaz aipatzen digu Piarres Lafitte, ez irakasle malguago edo eztiago gisa baina Piarres Larzabalen engantxatzeko talentu baten jabe zelako: irri egiten bazekien eta ez zen harena umore ttinkia baina karkaila ozena ateratzeko gai zen arraileria.

Bide horri lotzen zaio apezgai gaztea. Lehen lanak Daniel Landartek bere lehen *Aihen ahula*-n deskribatzen duen testuinguruan kokatu behar dira. Pieza horiek apezken kontrolpean ziren antzeztuak, haurren eta herritarren eraikuntza morala helburu, ez zuten taulagain efektuetan anbizio handirik, eta berriz itzuli behar da telebistarik eta beste irudi iturririk ez zen mundu hartara ulertzeko denbora lipar goxo baten hartzea ere zutela estakuru.

*Hamalau urte, Piarres zozo, Irri eta nigar, Merkatutik, Gerla urte, Kontrabandistak, Dendarietan, Manex ohoretan, Ferranddo...* tituluak berek salatzen dute obren iturria, karrikako obserbazio batetik heldu dira, kostunbrista hitza ez daiteke batere ebatsia. Karrikako irria da hemen nagusi, egun guzietako istripu eta gertakari ttipi, kalapita merkeak dira erakutsiak, irri-egingarri baldin badira, pasadizo xeble horien umorea dute eta Larzabalek bere haur-gazte memorian atzematen ditu: idiak ikusten ditugu etxera ihes joaten korbea amets, itzainak mama gorrian ahanzten dituelarik, egun guztiz tenore berean postariak kantonierari ateratzen dio irain astun bera, erantzun beraren altxatzeko... *Gerla urte* edo *Kontrabandistak* bezalakoek gaietarik salatzen dute iturri autobiografikoa edo familiako solasa bederen... Joko kostunbrista edo hobeki errateko naturalista ekidinezina da hauetan, Larzabal «ostra bezala da bere arrokan», edo hobeki errateko «betzua bezala Larhunnen». Errealismo hori frogerra da lehen antzerki horiek daukaten frantses proportzioari ohartu eta. Garai horretan ez du euskara lanjerrean ikusten, ez du normalizazio axolarik, nork dauka funtsean orduan, euskara euskara da, bere ohiko tokietan da erabilia eta, Larzabalek bere mintzaldietan dioen bezala, jaun eta jabe dugu hemen. Frantsesa kanpoko funtzionarioen hizkuntza da, eta nehork ez litzake herresta haiek irudika euskaraz mintzatzen, fikzio hitza ez da hona heldua.

Antzerkiak ikusten eta entzuten dugunaren isla behar du izan, deskriptiboa hots. Herriko irria entzuten dugu hemen. Gurea. Larzabalen antzerkia benetako euskal antzerkia delarik. Egiatzko Euskal Herria taulagainera iganarazten duelako.

## Benetako Euskal Herria?

Edo benetako euskal teatroa? Entzun dezagun Maite Dunat heletarra, azken hamarkadetan hainbat antzez-proiektu desberdinetan ari izana, antzerkilari historiko izena merezi duen bat baldin bada hau daiteke.

Beti herri ttipi estereotipatu bat, bere pertsonaia estereotipatuekin: apeza, haren gelaria, ez dakit nork dakien orain zer zen gelari bat, ostalera, gero bizpahiru atso. Kronika sozial bat zen. Eta horrekin bere ideiak Euskal Herriaz, euskal nortasunaz, hori beti agertzen zen, izan Ameriketara joaten zirenak, berriz jiten...

Lerraketa aski fite heldu da. Ez du Euskal Herria den bezala pintatzen ezta ere ikusten duen bezala. Antzerkia tresna zaio, mintzatzeko, errateko, agertzeko toki bat. Antzerkia konbentzioa da, espazio sinboliko bat sortzen du, pertsonaien gatazkaleku, autoreak erran nahi duenaren esperientzien egiteko eta ideiak sorrarazteko gunea. Molde natural batean, edo naturaltasunez bezi.

Estereotipo ikusten ditu pertsonaiak Maitek. Estereotipo edo arketipo? Zeren antzerkiz antzerki jauzi egiten dugularik, pertsonaien arteko eite handia argi egiten zaigu, tipologia markatua finkatzen, panpinak kasik. Familia-ka sailka ditzakegu, soilduak, estilizatuak zaizkigu, beren betebeharrak plegatuak. Karikaturak? Ba, esanahi noblean, esanahia jalgitzen baitzaie berehala edo beharren arabera, sentsu garaile izan daitezten.

Zeren Meyerholdek erakutsi digun bezala, errealismoa ez baita antzerkian posible, ez baita ikusle soilarentzat irakurgarria. Maitek diosku, haren ideiak nahi dizkigula pasatu Zokoako idazleak eta ez du antzerkiak denborarik aski *in extenso* errealismoak behar duen denbora jasan dezagun. Denbora tinkoagoa behar du, pertsonaia abiadura kurtsa batean sartzen da taula gainera agertu orduko.

«Antzerki hitza nehork ez zuen hemen gaindi ezagutzen, komedia erraten ginuen» erran du Larzabalek behin baino gehiagotan. Normal da, neologismoa zen, hitz berria garbizaletasun helburuz kolatua. Baina ez ote zaio Larzabalen antzerkiari, tragikoa barne, komedia hobeki joaten edo hobeki errateko *commedia* ortografiarekin? Izan ere pertsonaia sare bat du testuz testu osatzen tresna kutxa batean bezala lerrokaturik, bakoitza bere lekuarekin beste testu batean baliatzeko prest, errekkurrentzia handia dute batzuk testu ezberdinetan, esaterako, bikote kasik bera dugu entzuten mokoka; giderrak eskutan ditu etxeko andere zentzudunak eta alferkeria, edo «inutilkeria» dosi ezberdinetan daukaten senar kofa berak dira beti ageri. Eske kantuetan diren berberak: «Kadiran zaude jarririk, koloreak gorririk, guri xingarra ematera jeiki bazinte hortik», laudorioak harilkatzen direlarik etxeko andere bertutedunaren alde.

Irria bera. Lafitteri maite zion irri karkaila gordin hura dua beti? Ibañetan dramamurgiltzen gaitu, sinbolika eta metafora argien lupu sarean kokatu gaitu hatsarretik, tortura ingurugiroan ohar Apfelen hazpegien pean Manzanas-en alegoria inposatua digula, Satorbeltz heldu da «galdezkatze-za», erridikulu baino gehiago, fartsa borrero. Orduko antzezeleen kontratazko sisteman, distribuzioa gazte talde baten erdian egiten zelarik, posible zena zinema *gore* bateko kinka baten asmatzea? Non ez dagoen barnago arrazoi gordea? Antzezte defendatzea baita. Eta hor apez izateak, abokatu litzatekeen bezala, ez ote dua laguntzen? Antzezgarria izan dadin edozein pertsonaiak bere humanitate parte behar du. Ez daiteke pertsonaia arras beltza eta ez arras zuri, bazter guziak eneatzeko arriskua hartu gabe. Esaterako, Bordaxuriren lehen ateraldiak, antzerkiaren hatsarrean, ez dira gure ustez antzezerrazak, hain monolitikoak dira non, jokoaren ezberdintzeko espazio guti uzten baitute. Ederrago zaigu pertsonaia bukaeran ahuleziak edo partida galtzeak soinean dituelarik, hilarrietan gaindi izuturik, bere buruaz beste egiteak tentatzen, hilen bozek edo bere kontzientziak ate joka ari zaizkiolarik.

Larzabalen ideiak ez dira ardura testuetarik edeki gaitzak, bai, baina haren pertsonaiak hori baino gehiago dira, kideatasun handia erreibindikatzeko du ttipi, mehe eta ahulekin, baina egundaino ez du negar egiten horien zortearren gainean, irri-egingarriak nahiago ditu tristeak baino eta besteen

heinean tratatzen dituela itzultzen die antzerkiz jendarteak ukatzen dien duintasuna. Brecht entzuna balu bezala, ez gaitu istikaturik uzten emozioaren lekan. Ez bada oraino urrunago joaten. *Herriko bozak*-en Pako arte handiz identifikarazi digularik, duda izpirik ez dugularik haren ahotik dela Larzabal bera mintzo, bukaeran zafratzen du gupidarik eta urriki izpirik gabe. Inutila inutil uzten du kutxara itzultzerakoan, bere panpina lana bete ondoan.

Peter Brook-ek zioen antzerkia ez dela joko bat baizik hondarrean. Peixotori entzuna, Larzabalek idazten zuen irria ezpainetan, karkaila laburrak ere ihes egiten zitzaizkiola artetan.

Idazten zuen antzerkia ikusten zuelako. Bere panpinak animatzen baitzitu gogoan, ikusten zituen dantzan eta mintzatzen entzuten, beren euskara ateratzen. Kantor maisu poloniarraren tratamendu bera ematen zien. Nehork ez du dudarik Larzabalen hizkuntza izugarri ederra zela, bakarrak dira haren jariora goretzia dutenak. Baina entzun da ere aski urrun zela testu ongi idatzi batetik, errepikapenak, hots idazkia lehen luma ukaldian utzia zela nabari zitzaiola, berriz irakurtzeko denbora eskasa ote...

Hizkuntza hori antzerkiaren hizkuntza da, bat-batekotasunarena eta, bereziki, pertsonaiaena. Zeren hauek fabrikatuak badira ere, elea ateratzen zaie, halarik ere, ekintzan, eta ez da gibelera joaten ahal gero horien zuzentzera. Erranak erran, tokian tokiko eta unean uneko barne irudiak diktatuak dira, benetako pertsonaiei entzuna da nonbait paperean finkatzen. Antzerkiaren paradoxa da, alegiazkoa eskatzen da, errealismoa arbuiatzen baina sinesgarritasuna du izari. Horretako dira honen pertsonaiak hain efikazak, hain egiazkoak, hain harrigarriak. Idazlea bera irriz hasarazteko puntuan. Non ez zuen irri egiten publikoari egiten zion jukutriaz, Arlekin maltzur bat gordezten balu bezala pieza horien tiraderan.

Erraten zen ene gazte denboran Larzabal ez zela batere gizon handiuste, ez zela batere bere obraz jelos eta, herrigintza helburu zuelako, berdin zitzaiola lana ontsa edo gaizki emana izan zedin. Hemen zela ulertzen zergatik ez zen sekula ikustera joaten. Mixel Brust Hazparneko antzerkilari zaildua ez zetorren bat horrekin, zioen hark, bazekiela autoreak beti gaizki ematen zirela hemen gaindi edo ez hasteko lanak merezi zuen heinean. Uste dut nik

idazten zuelarik ikusten zuela lana bukatu, entzuna zuela eta gozatua zuela eta ondotik ehiza sasoi batez baliatu belatza askatzen zuela beste bizi bat ukan zezan. Karkaila irriz ari zen beti bere obra baten ikustean. Ahantzi zukeen, ez horrela ikusi. Hasteko birdeskubritzen zuen, ikusi zuen baino desberdinago, pertsonaiak beste moldera jantziak...

100 antzezlan baino gehiago idatzi ditu. Sekulakoa da. Noizbait saiatu garelarik idazten izutzekoa ere bazaigu. Bata bestearen ondotik idatzi ote du galtoak jin ahala? Edo proiektua zuen? Egitasmo baten morroi jarri ote du luma? Eta pertsonaia kutxa?

Gerla ondoko jendarte porroskatu batean hasten da seriozki idazten. Kanpotik heldu dira arrotzak, gureak joaten, frantsesa sartzen da indarrean irrati lehenik, telebistaz laster, euskal etxeetan. Atomizatu porroskila horiek zementua behar dute eta ez du euskarak baizik izaten ahal lotura, porlana. Euskara bizi eta funtzional bat, malgutasunez biziaren aldaketa guzietan egokituko zaiena. Taula gaina biziaren metafora izanen da eta han biziko dena kanpora joateko on izanen, hiztun berrien gorputzetan saiaturik. Edozein taldek eskaturik ere ematen zuen? Bai. Helburua zuelako, urgutzia bazegoelako. Pako eta Klotilda hauek biderkatzea, pertsonaiak jantzi edo gorputz desberdinei egokitzeak ematen baitzien pluraltasuna, egitasun gehiago eta baita herrikoitasuna. *Pertsonaia* eta bere mezua ereiten zituen, *posible* egiten zuten eta, beraz, eraginkor. Hizkuntza zaharrean errotua jalgitzen zen hizkuntza berria, erreferentzia berriak gazteek ahoz aho erabiliak jada eta beraz jada aforismotik erran zaharrera pasatuak epe motzengatik. Hori guzia joko erradikal batez gogoetan sustraitua, edozein zinemari lehia-tzeko on den joko bat, estilo bat ez bailezake uka, filma mutuetako burleskoak, *slapstick* amerikanoari hartua ematen baitu.

Itzul gaitzen arren Xarritonen obra osoko liburu pilari buruz eta lehen lan autobiografiko/errealistearik has irakurtzen. Ohartuko gara irakurketa leku berean zaigula geldotzen... helduak gara *Etxahun* edo *Okilomendi jaun mera*-ren gune horretara. Utz dezagun *Etxahun*, goraiatua izan da arrazoi ezberdinengatik. Zerk egiten du *Okilomendi* bezalako fartsa batean zerbaitek debekatzen digula arin irakurtzea? Zerbaitek gaizki uzten? Irria garrazten zaigu. Mezu iluna ba ote dago hor? Zerbaitek huts egiten dugu? Zuzendari

begiz hasi gara leitzen. Sentitzen dugulako ez dela debaldetan ari, sentitzen dugulako zerbaitendako egina dela hori, ez duela idatzi denbora-pasa eta ezin dela denbora-pasa eman. Testuak lerroen artean tinkatzen duen gauza hori *trabesa* da antzerkilariontzat, Stanislavski errusiarrak *konfliktoa* deitzen zuena, edo itzultzaile batzuen arabera «beroa» dei daitekeena. Sozietate berria eraiki nahi delarik bide onetik da abiatu behar, ezin da zaharkituarekin ezitia izan. Bide zuzenekin hasi behar eta egia noizbait erran. Antzerkiaren errekurtsoek beztiturik erraten badugu ere.

### Egia min

Antonin Artaud idazle frantziarra famatua da bere antzerkiari buruzko idazki teorikoengatik eta bereziki «ankerkeriaren antzerkia» kontzeptuaren asmatzeagatik.

Naturaltasunaren pertinentzia alde bat ukatzen du antzerkiaren posibilitateetatik botaz, jokoan du gure atenzioa biltzen edo interpretazioan, zuzendaritzaren lehentasuna du aldarrikatzen. Baina bereziki bat-batekotasunaren indarrean ikusten du antzerkiaren bihotza, berehalakotasunean, irudi bizi eta erradikal batean proposatzeko ahalean. Badu sorpresatik, bortizkeriatik, txoketik baina ene ustez biluztasuna da antzerki irudiak behar duen tasuna. Ez dugu aberea ikusi behar baina haren larruaren peko gorputza, haragi, zain eta odol, kasik sozietatearen mekanika, gezur eta iruzur barne, begi bistako agertu behar zaigu estetikak sublimaturik, eta une honetan arte solas baikabiltza, ez dut edertasuna erran nahi baina estetika, arras posible baita egia den irudia ez dadin eder izan burgesen gustu salgarriaren sentsuan.

Larzábalzaleok ulertua dugu betidanik ez dela holakorik honen antzerkian. Ez da probokazio mota horretatik deus ere, ez da gorputz biluzirik ez eta ere antzerki punkak eskaini haragi ustel aurtikitzerik. Larzábalek irriz lokarrarazten gaitu, biltzen, defentsak kamusten eta sakeleratuak gabela, atzartzen gara taula gainean egia hor delarik biluzirik, bere obszenitate handiengan.

Ikusten dugu maingu dabilen jendarte bat: lege zaharra ez funtzionatzen, apezen predikuek deus ez soleitzen, postu gorenean inertziak ezarri horien

buru huskeria, alkoholismoa, notabilismo kutre zaharkitua, boterearen erri-dikulua, fitsik balio ez duten sari batzuentzat gure auzo eta jendakikoak lurra milikatzen, estatu kolonialak haurtu nagusi usteak. Ohartarazten digu ez direla gaitz guziak kanpotik heldu, irri eginarazten digun antolaketa sozial hori gurea da, lege zaharretik ukana, baina oraingo trabesak ikusiz deusek justifikatzen ez duelarik: Bordaxuriren pakantak, buhameak, izenik gabeak, ezdeusak... mespretxu hori noren ahotik isurtzen ote da? Proiekturik ez duen pertsonaia hipokrita eta esklerosatu horren. Orain? Nora goaz ezkontza sistema horrekin? Arraberrituko dira herriak, trabes erraldoien buru eginen dute, kanpotik heldu diren hada istorioetan ere martxan ez diren araudi horiekin?

Gerlatik jin zen Larzabal eta bazekien gerla guziak direla haustura itzulezinak. Erresistentziak ekoitziak behar ukan ditu irentsi estatuaren aparatuek. Ezin diogu ihes egin merezimenduan gainean oinarritu jendarte berriari. JAC-ek fabrikatu neska gaztearen promozioa egiten du antzerkiz antzerki, eskolatua eta bere buruaz segur, noranahi joateko on, hierarkia sozialean hupatzeko gertu.

Politikaz baino harago doa. Behar dea oroitarazi *Etxahun* lehenbiziko liburukiaren erdian agertzen dela? Goiz. Hatsarretik zaunkarazten ditu Etxahuneko zakurrak, Hegiapal hor da, Engrazi besarkatzen, Etxahun pazko bezperan joan delako kofesatzera. *Bereterretxen kantoria*-n bezala... pazko bezpera... Uler dezagun biziago trabesaren indarra. Ez dugu asmatzen ahal holako agerraldi batek orduko testuinguruan zekarren eskandalua. Sufrearen kiratsa antzokian zabaltzen da. Apez batek baitu Eliza sainduari errateko kopeta jendeen arteko hitzak sakramentuak baino gehiago direla. Edo, bon laxatzen naiz hor, eztabaidagarri dela... Hasteko amodioa du berriz definitzen, mezu ebanjelikoa du hedatzen eta Bernat Etxeparek aipatzen duen *onerizte* horrek, amodio jainkotiar horrek balio du handi-mandien morroi jarri den Eliza baten sakramentuak baino gehiago.

Zakurrak xanpaka, haurrak ondoan... urgentziak uzten ditu hitzak ihes, egia isurtzen da hemen, han mozkor baten delirioak irekitzen du iturria eta entzuten dugu sekulan entzuna izan ez den demokraziaren definizio ederrena: «jendeak berdinak dira hiru aldiz beren bizian: sortzen direlarik,



hiltzen direlarik eta bozkutzen dutelarik.» Frantziaren aho zilora eta euskaraz...

Holako zerbait baita antzerkia. Jauzi hori, paperetik oholtzara. Irakurketan ikusten ez genuenak itsutzen gaitu orain. Errebelazio bat da.

Funtzionatzen da film argentiko bat bere isurkian ezartzen dugularik bezala, ikusten ditugularik irudiak emeki-emeki lausotik argira heltzen eta sorpresa horrek, argazkia kausitua delarik, ohartzen garelarik ximikatzen gaituen emozioa lanean ari zaigula, ez dela hori ulertzea soilik, harridurak gogoaren atea jo egiten du, horretan alde bat kokatzeko. Argazki horrek erakusten du alta ezagutzen genuen zerbait gure bizitzan kostumatu zertxobait. Bagenekien baina ez genuen ikusten. Begi bistakoegi zatekeen. Fama-tua da Brechten *Galileoren bizia* ekialdeko Alemanian emana izan zelarik, ikuskizuna aitzinatu ahala, metafora bezala funtzionatzen hasi zen, baina laster ez zen inkisizioaren totalitarismoa aipatzen, *Berliner*-eko salan zabaldu zen egia-arena edena, erregimenaren baliatzaile zen burgesiaren artean ihintza bezala pausatzen...

Harrigarrienak menturaz Larzabalen obran, kofesatze edo aitormen eszena haiek. Denbora haietan bizi izan direnek dakite zer ziren bestaburuen aitzineko aitortze behartuak. Non ez zen pentsatzen ahal ere zerbait gordeztea, bekatu mortala egoeran izatearen arriskuan. Zail zaigu imajinatzea apezek zekitena, bizi publikoaz eta politikaz bai, baina are gehiago familia barnekoaz, eta norberaren intimitateaz. Salatariak bestalde. Hori guziaz alabaina apezak sekretu hautsezinaren preso zirelako segurantzaren truke.

Antzerkietako fikziozko kofesatze horiek, fabrikatu eta paradigmaticoak, intrigaren beharrentzako tolestuak, egiazkoak baina indartsuagoak dira, euskal parrokia barne guziak flipaturik atxikitzeraino. Entzun dezagun Piarres Xarriton horretaz:

Jainkoak hainbestetaraino maite gaitu, non ooren buru, horren begietan ez den diferentziarik, izan giten saindu edo bekatoros, bekatoros izanagatik ere, maite gaitu, zeren, baitakigu guk sekulan pentsatuko ez duguna, nornahiren baitan, gizon horren baitan edo emazte horren nortasuna eta haren egitateak ez direla baitezpada gauza bera.

Imajina istant batez orduko erlijio zurrunik moldatu arimen erreakzioak holako errebelazio baten entzutean. Kasik non gauden ere ez jakiteraino, atzo, orain edo geroan. Eszena haluzinante horiek arraroak ez dira obran, *Paper mende*-ko hura bezala non ikusten diren funtzionarioak belauniko paper jaten ari. Delirio maoista bat *Iraultza kultural*-etik zuzen-zuzena kalkatuak. Mixel Brustin galdegin genion hortaz denboran:

Nork erranen zuen orduan, orain 2007ko urtean holako papereria eta administrazio eta istorio izanen zela?  
Hark ikusten zuen

Antzerkia aztien artea dela ez zuen ukatuko ez Artaudk, ez Peter Brookek ere, zerengatik bestela joanen ziren *griot*en bila aktore lanaren betetze-ko, Brook eta Sotigui Kouyaté-ren kolaborazio luzea lekuko?

Tradiziotik sortu boz entzun eta distantziatu horiek xilarra dira antzerki-ko. Publikoak ohartu gabe ere transferra egiten du eta ematen zaio hor zabalduari pisu handiagoa. Bertsolarien hitz neurtuak, errimen klaskak, erran zaharraren indarra ematen diote testuari, entzulearen jujamendua gidatzen, egiaren oihartzuna erranari eskainiz.

Bertsolariak tradizio parateatral batean sartzen ditu Gabriel Arestik pastoraletan batean. Larzabalentzat antzerkia dira hauek bete-betean. Beretretx, Bordaxuri, Katxo, Matalas, denak dira bertsolari gordeak. Baina Larzabal ez da horretan gelditzen, ez zaizkio aski hitz soil diren pertsonaia horiek. Intuizioz oso ongi daki, esperimintatu du bere panpina laborategian, taula gainak mugimendua eskatzen duela eta haren pastoral arrabisitatuetan, kostumetan pentsatu lanetan bufoiek rol nagusia dute, denak dantzaz mugitzen dira eta ditxoek akuilatzen dituzte, libertimenduetako uxerren eran.

Idatzi dut jada *Herriko bozak* esaterako, zirtziletan hartu pertsonaiez ehuna dela, errient eta butigari, eiherazain eta kridari, asto eta zozo. Zozoak zaizkit interesgarrienak, ez delarik erraz erratea zuzen zer zaizkion: ments, ero, xeble, anarkista merke, karakterialak, murrutun edo koskak, alfer okituak edo dena ere on lanari (jendarteari?) ihes egiteko, edo, azken finean, teila bat eskas bakarrik. Hots, antzerki bufoiak dira denak, *Triboulet*-en askaziak eta ausartzeak mintzarazten baditu ere, inkontzientzia, haur-

keria ez zaizkie arrotz, ez eta ankerkeria ere ez funtsean. Buhamesaren aho-berokeria *Hiru ziren*-eko Garaziko plazan edo ziburutar aho handiak *Mugari tiro*-n. Denak Europako antzerkiaren iturritik datoz, gure herri antzerkiak etxekotuak.

Larzabalen pieza askoren tonu batasun ezak arranguratzten ditu maiz zuzendari kargua hartzen dutenak. Izan Frantzian edo Espainian, formatu baikaituzte klasikotasunaren izarian eta buruan sartu, lan bat ona izatekotan tragedia edo komediaren artean hatsarretik hautatu behar dugula. Ikusizuna genero batean kokatu nahi dugu beti eta honen garbitasuna zaindu. Pastoral zahar batek irri espazio bat baldin badu, asto-laster puska zerbait txertatua izan zaiola uste da. Eta errepikatzen. Hamletek ez du alta aise ukatuko bere drama izaera, hilarrietan irri eginik ere eta Brechtek erreibindikatu du ozen agerraldiek independente izan behar dutela eta taula gaineko egoera batek bere balio propioa, taula gaineko kinkak funtzionatzen duela bakarrik testuingurutik kanpo. Ikuslea ezerosotasun batean atxiki arte. Helburua da hura preso mantentzea intseguritate batean. Ez dezan loak har.

Baina ez hori bakarrik. Mintza edozein antzerki pertsonarekin: publikoa atzarririk parean ukaitea ez zaio aski. Antzerki kausitua ez da definitzen ateratzean «ontsa zen» batekin kalifikatzen dutelarik. Ororen buru taula gainekoei berdin zaie publikoak analiza dezan positiboki, «uler» dezan sartu dugun mezua. Eta Brecht-en lanak ere ez dira idatziak helburu soil honekin. Berak nahi duena erranik ere. Antzerkilariak antzerki handiari *inpaktua*-ren sortzeko ahala eskatzen dio.

Inpaktua ez da literaturak sortuarekin erkagarri. Eleberri batean sartzten da bat, 2. orrialdean edo 108.ean. Antzerkian ere nahi bada biziki gozatzen ahal da obra bat delako «gauza» hori bizi gabe baina ez du teatroak literaturarekin egiazki hausten testutik jiten bada ere grazia une hori.

Definiezina da hau, sentitzen da, aretoan zerbait pasatzen dela. Denbora gelditzen dela. Stanislavskiren laugarren murrak leher egiten du. Ematen du batzuetan publikoa erdi zutitua dela, igan dela taula gainera, ekintzan sartua dela... Denek baditugu holako irudiak gogoan taula gainean ginelarikoak edo publikotik begiratzen eta segur naiz ez lukeela benetako antzer-

kilariak truka holako liparra taula jaustean jasaten ditugun konplimendu guzien kontra ere.

Erran zigun behin Janbattitt Etxarrenek:

Larzabal hasi zelarik ikusi genuen denek zerbait aldatu zela, ez zela gehiago antzerkia lehen bezala izanen. Izan ziren lehenago testu ederrak, idazle biziki onak, baina ematerakoan ez zen berdin. Publikoak ez zuen berdin ikusten.

Etxarren ez zuen orduko aireak engantxatu, ez du Larzabalekin kidetasun ideologikorik, ez zuen ikusiak *bere hartan* segurtatu... objektiboa zaio «zerbait aldatu» hura. Eta alferrik aipa genitzake funtsa, obren eraikuntza, zuzendaritza, taula gainean jokatzeko baita ezberdintasun hori. Horrek du egiten gure gizartea hain aldatua izanik ere, euskal hiztunak eta ondorioz antzezleak hain aldatuak izan arren, funtzionatzen dutela beti testu batzuek, agerraldi beren bihurgune berean, sortuak direlako delako inpaktuaren eragiteko. Funtzionatu dute eta eginen, jokalarien eskasaren gainetik ere. Xarma, onespina, gurea delako, transmisio bideak leherturik ere etorkiak gaitu lotarazten?

Emile Larre zena Urruñan egon zen bikario eta ondorioz harreman estua eduki zuen Zokoan erretore zegoenarekin. Bakarretan laudatu digu haren erraztasuna, hitz jarioaren oparotasun eta elegantzia, iturria zion, pertsonaiei solasaren egokitzeko naturaltasuna. Behin galdegin nion literaturan ikusten zionez dohaina, testuan berean zegoenez haren ustez lapurtarraren abantaila. Arras harena zen irri ironiko hura jalgi zitzaion baigorriarrari, ageri zen oroitzapen eder bat azaleratu zitzaioela eta:

Imaginazione bat izigarria. Ikusi dutalarik Urruñako plazan, zer zen? Kontrabanda istorio ez zena hura? Ezarri zituen behar bada hamabost aktore edo, oihana zen hori, bakoitzak bazuen arbola adar bat, oihanean ziren! Eta gero horien gibelean bertzeak gordatzen,... eta itzulikatzen eta guardak eta... imaginazione bat... eta sinpleki gero! Ez da ibili hortako edo Bordeleko teatroan edo... jantziketara edo istorio... ez ez! Berak egin trapu batzuekin.

(Hemen segur naiz Baionako antzokiko *Matalaz* zuela partida, eta ez zen bidez tronpatzen Larre bere asaldatzean, hor zitatzen duena Baionako konkista baino gehiago baita, antzerki artearen definizioa bera.)

Larrek zitaten du hemen Meyerholden «konbentzio kontzientea», matematikak bezala funtzionatzen du. Axioma pausatzen dugu: hemen 15 horiek oihana garela deliberatzen, eta bat-batekotasunak egiten du istantean sinesten dugula eta ondotik biziaren lege berberak aplikatzen baditugu guri so dauden guziak oihanera eramanez dira, ez gure baina haien imajinazioari esker. Ekintzan sartuak dira. Politza da ohartzea, ez dela batere oroitzen gaia zer zen, zer zuten erran nahi, badakike, baina hamarkada pasatu ondoren beti han da oihana, Urruñako plazan. «Berak egin trapu batzuekin» Grotowskiren «antzerki pobrea». Jokalariak ez du joan behar kanpoko artifizioen xerka, antzetzu ezinaren konpentsatzeko, zinemari uzten dio errealismo merke hori. Biziki urrunago joan gaitezke hori gabe ere. Urrunago jendeen kontzientzietan.

Oihan hura ezaguna bazaie, guarda eta kontrabandistak auzo eta etxe-koak badira behintzat. Etxekoa edo gure baitakoa bada taula gainean agertzen dena. Baldin badakite antzezleek uzkur egoten esplikatzeari. Misterioa edo enigmaren partea dilindan uzten badugu kadiratik altxa daitezke eta ekintzan sar. Kasik lege fisikoak apur ditzake antzerkiak.

Zitatu ditut bakarretan, *Mugari tiro*-ko guarda zibila saskipean preso edo Ibañetako tortura, lasto hedatuz errearen urrina konbokatzen baitzuen salara Larzabalek asmatu antzerki metafora jeniala gisa... Ez da haatik Basabeltzeko kandelena itsusiagoa. Edmond erresistentzian ari da, segur da bere aitak salatu duela alemanei, ama trantsitua da etxean makur bat jin daki... Lau xirio pizten ditu etxeko lauen biziaren zain.

Ordu hartan ez da salan nehor ez baitu ikusi ama, ttantta, edo auzoa elizan ezkoa bere saski ttipian pizturik. Denek dakite erleek ekoizten duten ekai berezi horrek arima izateko ahala duela eta beraz lau kandela horiek bizi direno bizirik direla lauak. Edmondek aita tiroz bota du, denek dakite amak salbu. Nehork ez du bihotzik aski horren errateko ezta Edmondek ere, alta erakutsi duelarik honek kuraia izugarria Frantziaren etsaiaren aitzinean. Hurbiltzen da, eriak bustitzen eta xirioa hiltzen. Amak burua apaltzen du.

Aizto ukaldia biltzen dute aretoko guziek. Ez da deus ederragorik egiten ahal antzerki artean pastoral heriotza hori baino. Ez du amesten ahal antzer-

ki idazle batek gehiago osmosian izatea bere publikoarekin. Hau da Jacques Lecoq formatzaile frantsesak aipatu «fondo poetiko komun»aren konbokatzea. Eta kausitzea.

Sorgin lana da. Izutzekoa bada kadiran aditzen delarik profeta ekintza hori. Ez da gure antzerkia, edo ez bakarrik, egina propaganda egiteko. Antzerkiak behar du mintzatu sinesten dutenei eta sinesten ez dutenei, Brechten berak zioen bezala.

Antzerkilaria lemazaina da eta eraman behar ditu denak berekin portura, salburik. *Basabeltz*-en baina Ibañetan ere bai, irakurtzen zaio Larzabali Euskal Herriaren zatiketaren beldur obsesionala. Roger Idiart zenak zioen hori ulertu zuela FFIEk anaia garbitu ziotelarik bentetatik itzultzerakoan. Populu bat gara eta euskara dugu loki. Euskaraz mintzo diren guziak gureak dira eta haiei dizkiegu kontuak zor.

«Hau ote da giltza? Larzabal hurbiletik ezagutu dutenek gogoan atxiki dute Peixotorentzat zeukan maitasuna. Galdegin nion honi behin «Zergatik idatzi du hori guzia? Zer eskatzen zion antzerkiari zure ustez?»

Berari min ematen diona, eta hori ez da ustea, zergatik, hori esplizitoki errepikatzen zuen, edozein unetan azaltzen zen gaia zen, bi gai badira garrantzi handikoak: injustizia, eta injustiziaren barruan, injustizia hori non herri bat gu bezala ukatuak geran. Eta, lehen hori aipatu degu: nola pobreak eta baztertuak eta jende erorien baitan aurkitzen den aberats handi mandiengan atzematen ez den argia. Jendea baita. Kentzen ditu porroskila guziak, zikin eta zauri guziak: jendea!

Hemen Agosto Boalen *Zapalduaren antzerkiak* ari da. Hemen beren kulturaren lehertuak direnei beren kulturaren bidez duintasunaren berreskuratzeaz ari gara. Ez du erraten «Altxa hadi eta ibil!» baina «Altxa hadi, taula gainera igan eta mintza.» Mintza euskaraz. Larzabalen antzerkiak gerla haren ondotik 10 urte barne desagertu behar zen euskararen orgak arrolatik atera ditu, belaunaldi oso bat formatu alfabetatu, barnetik egituratu. Antzerkia tresna da gure duintasunaren eraikitzeko, jende bilakatzeko, munduaren tramankulu guzien ikusteko eta borroka hasteko. Hor gebarismoaz mintzo gara, Brechten poemez, hemen ortutsik dabiltzanen gidari egiten da,

eta Helder Camararen «askapenaren teologia» du predikatzen. Julen Le-  
kuonaren gitarrak *Eliza pobrea* laguntzen duelarik.

Ez da harat ez honatik, ez da antzerki otzanik posible. Ez da antzerkia  
baizik, antzerkia beti jenio txarrekoa baita, bortitz eta intsumiso. Larzabalen  
testuak irakurtzean beti ondorioztat atera zait Larhungo betizuak zirela ha-  
ren totema baina orain iduri zait, haren antzerkiaren metafora ere direla.  
Siple, soraio, azal gorrasta eta adar zorrotz, baina beren ingurumenean  
dabiltzalarik nork ukatuko du ez dutela berek baizik ez duten edertasun  
hunkigarri bat.

Zaintzen badira, handi-mandikeriak ez bagaitu eramaten beste nonbait  
haztera, eta tratu zikinetan aritzera.

Larzabalen oroitzapenak beha:

Baina kanpotiarrak Larrunen hegal ederrez oharturik, batzu oinez,  
bertzeak mandoz, azkenak tranboz, gure mendiaz jabetu ziren (...)

Zenbaitek adar kaska batzu bildu zituztelakotz, legea atera zuten  
behar zirela betisoak suntsitu... eta denak tiroz garbitu zituzten, az-  
kena Uharteko ondoan...

Antzerkia aztien artea da.